

ASUNA TA LARROSA

(Azkeneko indar-neurtzeetan Aipamen onragarria irabazia.)

Asuna ta larrosa
Baratza batian
Itzketan ari ziran
Alkarren artian.
Larrosa beti umill
Zerbait esatian
Baña asuna arro
Beretzat kaltian.

ASUNAK

Egonagatik i or
Ni baño gorago,
Beti-beti bezela
Orain ere arro,
¿Lurreruntz makurtua
Zergatikan ago?
¿Uste al den aizela
Ni baño geiago?

LARROSAK

Ez, zu baño geiago
Ni naizelakuan,
Baizik Jaunak ipiñi
Ninduan lekuan,
Nola karga aundiak
Dauzkadan lepuan,
Nago makur, ez modu
Zu bezelakuan.

ASUNAK

Kargarik lepuan ik
¿Zer izan bear den?
Obe uke baengo
Ni bezela lerden;
Lurrera makurtzen baiz
Bare-ren bat orden
Eta zatituko au
Egiñaz lau laurden.

LARROSAK

Nere lepoko kargak
Dira eun orri,
Guziak eder-eder
Zuri eta gorri;
Ikustatzalle asko
Oi zaizkit etorri
¿Ondamurik eztizut
Ematen zedorri?

ASUNAK

Eztiñat izaten nik
Ikusle bearrrik,
Eztiñat nai-re iñork
Ematea urrik,
Beste moduz bizi naun
Neroni bakarrik,
Ekarri gabe nere
Buruari larrik.

LARROSAK

¿Errez alda zugana
Iñor urreratzen
Ukitzen dizun dana
Badezu erretzen ?
Adiskidiak juango
Zaizkitzu urritzen,
Obeki ez artzekoz,
Baita-re urrintzen.

ASUNAK

Arrotso asten aiz gaur
Neri erakusten
¿Ez alden ba uste nik
Dedala ikusten?
Ezpadidan oraindik
Isillikan uzten,
Astera nijoakiñ
Makillaz erausten.

LARROSAK

Etzaizte, asun Jauna,
Arren asarratu,
Barka zadazu, bada
Nai zaitut onratu,
Nere esanak bitez
Guziro borratu,
Beñere ezitizala
Iñork gogoratu.

UME BATEK

Ume tñit eder batek
Zion larrosari,
Andikan bereala
Eskua ezarri,
Laztandu eta zuan
Paparrian jarri,
Betiko izan zediñ
Bere apaingarri.

ATSO BATEK

Atso zar bat ere zan
Nunbaitikan sortu
Eta asuna zuan
Sustraitik artu,
Irakiten zegoan
Ur berotan sartu,
Tserrien jatekoa
Ipintzeko gertu.

ASUNAK, LARROSAK
TA JUEZ BATEK

Asunak esan zuan:
«¿Ai au, neri lotsa!»
Larrosak berriz zion:
«¿Ause bai da poza!»
Ondoren aditu zan
Juez baten boza,
Asuna baño zala
Obia larrosa.

APAIZ BATEK

Gauz-enbat ondo egiñ
Nai dezutenian
Begiratu larrosa
Eta asunian
Ibilli nai duanak
Bide zuzenian,
Ispillua or dauka
Umiltasunian

PEDRO MIGEL URRUZUNO TA SALEGI